



## Hitzarmen duin baten alde

Grebak eta mobilizazioak aurrera eraman dituzte Michelingo langileek; akordiorik ezean, gehiago iragarri dituzte / 2

TXINTXARRI

## Zabaletako jaiak, udaren atari

Sanpedroetarako ederki berotu dituzte motorrak festa auzotar horietan; makina bat jarduera egin dituzte / 8-9

Ingurumen programan landutakoen berri eman, eta udal ordezkariak eskaerak egin dizkiete / 3

**Lasartearra elkarteak jarduera ugari egingo ditu urrira arte, aurten 50 urte beteko dituela ospatzeko / 5**

**'Lasarte-Oria: istorio zumez egina' dokumentala estreinatuko du Ihitten elkarteak / 6**

**Ikasturteko garai onenean murgilduta daude Kukukako kideak, 21. Antzerki eta Dantza Astean / 7**

**Lasarte-Oriako igerilariak ederki jardun dira Gipuzkoako Open eta Udako Sarian / 10**

**Ostadar SKTren 40. urteurrenaren amaiera festa eta Imanol Bardaji lehendakariari elkarrizketa / 12-13**

**8. URTEURRENA**  
LASARTE-ORIATARREN  
IKUSMEN OSASUNA ZAITZEN

Deskontu handiekin ospatuko dugu, aprobeitatu itzazu!



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia 15  
943 377 456  
LASARTE-ORIA



**MULTIÓPTICAS**

# Lantokia hustu, kaleak bete

Michelin enpresak Lasarte-Orian eta Gasteizen dituen fabriketako beharginek grebak eta mobilizazioak egin dituzte egunotan, hitzarmen "duin eta bermedun" baten alde borrokatzeko prest daudela adierazteko. Negoziazioei berrekitea eskatu diote zuzendaritzari

## Maddi Zaldua - Iñigo G. Sarobe

Enpresa batzordeak deituta, lanpostuak utzi eta kalera atera ziren Michelin Lasarte lantegiko beharginak hilaren 5ean, lantoki osoan greba eginda, enpresa zuzentzen dutenei mezu garbi bat bidaltzeko: hitzarmen kolektibo "duin" bat nahi dute, langileen soldatak inflazioarekin lotuko dituen eta erosahalmena ez galtzea bermatuko diena. Sindikatuek jakinarazi dutenez, ekoizpenean "erabateko jarraipena" izan zuen lanuzteak (Gasteizko fabriketan, %93koa), eta gainerako alorretan "oso handia"; arduradun batzuk lanera joan ziren. Komiteak iragarri dituen protesta ekintzen lehen sortako garrantzitsuena izan zen hori, baina ez bakarria, hilaren 2tik 4ra sektorekako beste zenbait greba egin zituztelako, "arrakastatsuak" horiek ere.

Elkarretaratzeak, auto karabana zaratsua eta manifestazioa izan ziren herriko fabrikako langileek aurrera eraman zituzten ekintzak hilaren 5ean. Guztietan parte hartu zuten behargin askok. 05:00etan egin

zuten aurreneko mobilizazioa, lantegi atarian. Lau ordu eta erdi geroago, makina bat ibilgailu atera ziren bertatik, ilara luzea osatuta; txilibitu eta klaxon hotsek esnatu zuten herria. Ekintza jendetsuena arratsaldeko manifestazioa izan zen: 500 pertsona inguru atera ziren protesta egitera, sindikatuen arabera. Lantegitik atera eta erdigunea zeharkatu zuten: pankartak, afixak, txilibituak, petardoak, bengalak eta antzekoak erabili zituzten euren aldarriak ozen zabaltzeko eta herritarrei euren borroka berri emateko. Irten zireneko toki berera iristean, komunikatu bat irakurri zuten. Hitzarmen kolektiboaren negoziatzioei berrekiteko eskatu zien zuzendaritzari, eta "orain arte erakutsitako harrotasun jarrerara" alde batera uzteko.

"Prekarietatearen mamua" uxatu nahi dute lantokitik, eta, horretarako, langileen soldatak inflazioarekin lotuta egon behar dutela adierazi diote zuzendaritzari. "Enpresaren balantze ekonomikoek

argi erakusten dute gure eskakizunei zailtasunik gabe aurre egin diezaieketela". Eskatzen ari direna merezi dutela uste dute langileek, "behin eta berriro" erakutsi dutelako euren "lan ona eta konpromisoa", pandemia hasi zenetik batez ere: "Jasan behar izan duguna ez da makala".

## Protesta ekintza gehiago

Michelin zuzendaritzak langileen eskaerei entzungor egiten badie, euren borroka kaleetara eramaten jarraituko dutela iragarri dute enpresa batzordean ordezkaritza duten sindikatuetako (LAB, ELA, CCOO, UGT eta CSI) ordezkariek. Hurrengo lanuztea hilaren 19an izango litzateke, astelehenarekin. Uztailerako beste bi greba egun deitu dituzte, 10ean eta 11n, hurrenez hurren.

Hori guztia esanda, komiteko kideek azpimarratu dute hitzarmen kolektiboa negoziatzen jarraitzeko borondatea dutela. "Gatazkari iskin egite aldera, zuzendaritzari eskatzen diogu bere jokabidea aldatzeko".



Auto karabanakoen txilibitu eta klaxonek esnatu zuten Lasarte-Oria. TXINTXARRI



Lantoki atarian elkarretaratzea egin zuten hilaren 5ean, eguerdian. TXINTXARRI



Herriaren erdigunea zeharkatu zuen manifestazio jendetsuak. TXINTXARRI



Martxarekin bat egin zuten herritarrek hainbat aldarrikapen afixa eraman zituzten eurekin. TXINTXARRI



Michelingo langileek irmoki adierazi dute borrokatzeko prest daudela. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako LHko ikasleak udal ordezkariekin bidlu dira, udalbatzar aretoan. TXINTXARRI

# Ingurumena zaintzeko konpromiso eta eskaerak

Udal ordezkariekin elkartu dira herriko ikastetxeetako ikasle ugari, pleno aretoan, eta Ingurumen Hezkuntza Programan landu dutena erakustez gain, hartutako konpromisoen berri eman diete. Zenbait eskaera ere egin dizkiote erakundeari

## Txintxarri

Lasarte-Oriako udalbatzar aretoan izan dira berriki herriko ikastetxeetako ikasleak. Ingurumen Hezkuntza Programan landutakoak aurkeztu dizkiete udal ordezkari. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedo, Zerbitzu Publikoetako arduradun David Mateosek, Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek eta Partehartze saileko arduradun Nagore Duran izan dira gaztetxoekin. Agustin Valdivia alkateak ezin izan du bertan egon.

Herriko bi ikastetxeetako (Landaberri eta Sasoeta) ia 400 ikasleek hartu dute arestian aipatutako programan, eta askotariko gaiak landu dituzte. LH4. mailakoek hondakinen azterketa egin dute. LH5ekoek, berriz, landaretza landu dute, eta LH6. mailakoek, aldiz, ura.

Gaztetxoek azaldu dute kontsumo tailerra egin zutela, eta hondakinak murrizteko eta berrerabiltzeko estrategiak ere landu dituztela. Gizakiaren historian zehar hondakinak nola aldatu diren ere ikusi dute, eta zaborra sailkatzen ikasi. Prozesu horri esker zenbait ondorio

atera dituztela ere jakinarazi dute, eta horien berri eman dute. Hondakinen arazoa hobetzeko hiru pauso jarraitu behar direla garbi dute: murriztu, berrerabili eta birziklatu.

Landaretza landu dutenek, berriz, zuhaitzak gertutik ezagutzeko aukera izan dute. Sorginzulo basoan ibili dira Landaberriko ikasleak, eta Basotxokon, berriz, Sasoetakoak. Azaldu dute sendabelarren tailerra ere egin zutela, ukendua eta sendabelarren koaderno osatuz. Lanketa amaierako saioa, aldiz, Froilan Elespe parke botanikoan egin zutela kontatu dute; zein ondorio atera dituzten ere azaldu dute. Beste zenbaiten artean, berdeguneak beharrezkoak direla ondorioztatu dute, airea garbitu eta oxigenoa edukitzen laguntzen dutelako. Horrekin batera, basoak eta bertako bizidunak errespetatu eta zaindu egin behar direla ikasi dute, eta egun beroetan zuhaitzek itzala ematez gain, soinetatik babesteko elementu naturalak direla ere bai.

Uraren gaineko azterketa egin dutenek ere azaldu dute zer ikasi eta zein ondorio atera dituzten. Kontatu dute uraren ziklo natural

eta artifizialaren berri izan dutela, baita elementu natural horrek egunerokoan duen garrantzia eta horrekiko egiten den erabilera. Errekak aztertze tailerrak ez ezik, ingurua osatzen duten arroak ere ezagutu dituzte. Eta hori guztia ikertu ostean, ondorioztatu dute egunerokoan kontsumitzen dugun ur kopurua murriztu egin behar dela, soilik beharrezkoa den kantitatea erabiliz. Horrez gain, ikasi dute Lasarte-Oriara datorren ura Añarbeko urtegitik datorrela, eta ur garbi guztiak edangarriak ez diren bezala, ur edangarri guztiak garbiak direla.

Ikasitako guztiaren aurrean, eta atalez atal, eguneroko jarduna zuzendu eta hobetu beharrezkoekin konpromisoen dekalogo bat aurkeztu diete udal ordezkari. Eta hainbat eskaera ere egin dizkiete. Horien guztien artean birziklapena bultzatzeko kanpaina handi bat egitea, edota herriko zenbait auzotan belarra maizago moztea. Horrekin batera, iturrietan soberan geratzen den ura biltzeko sistema bat ezartzeko, txakurrek hori aprobetxa dezaten ere galdegin diote.



Ezker-eskuin: Lourdes Acevedo, Eli Eizagirre eta Alazne Ruiz. TXINTXARRI

## Oporrak Bakean egitasmoa aurrera eramateko laguntza

Mendebaldeko Saharako hiru haur etorriko dira laster gure herrira, harrera familien etxeetara, uda igarotzera

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 10.000 euro emango dizkio Tolosaldea Sahararekin elkarteari, Oporrak Bakean izeneko egitasmo solidarioa aurrera eraman dezan herrian. 8 urteko hiru haur saharar etorriko dira laster gurera, beste hainbeste familiaren etxeetara, udako oporraldia igarotzera.

Eragile horretako kide Eli Eizagirre eta Alazne Ruizek pozarren sinatu dute akordioa. "Hona etorri eta itzultzeko bidaiak, igeriketa ikastaroak, itzulpen zerbitzua eta garraio

publikoa erabiltzeko laguntzak emango dizkiegu, besteak beste", azaldu dute. Udalarengandik jasoko dituzten 10.000 euroak Lasarte-Oriara etorriko diren hiru umei eta horiek hartuko dituzten familiei laguntzeko erabiltzen ez badituzte, uda beste udalerrri batzuetan igaroko dituztenentzat izango da xahutu gabe geratzen dena.

Argi adierazi dute "talde lana" izango dela udarakoa, ez dutela dena familien gain utziko. "Gure elkarte, udala, familia eta umea izango gara, laguntza eta babesa emango diegu".

## Udako Txokoen izen ematea ireki du Lasarte-Oriako Udalak

Txanda bana egingo du uztailean eta abuztuan. Aurrez aurreko inskripzioa egiteko azken eguna, hilaren 16a

### Txintxarri

Udako Txokoetako lehen txanda uztailearen 3tik 28ra artekoa izango da, eta bigarrena, abuztuaren 1etik 31ra artekoa. Bi ordutegi eman dituzte aukeran: 09:00etatik 13:00etara edo 10:00etatik 13:00etara. Lasarte-Oriaren erroldatutako haurrek izango dute lehentasuna, 3 eta 12 urte artekoak. Tokirik libre geratuz gero, beste herri batzuetako umeek aukera izango dute izena emateko.

Aurrez aurreko inskripzioa egin nahi dutenek Pablo

Mutiozabal kaleko 2. zenbakira joan beharko dute, Urdaneta eraikineko solairuartera, hirugarren bulegora, 16:00etatik 20:00etara, hilaren 16a baino lehen. Sarean egiteko aukera ere izango dute, esteka honetan: <https://udakotxokoaklasarte-oria.com/inskripzioak>. 18a izango da azken eguna.

Aurtengo kontratua Servicios Globales Araba SL enpresari adjudikatu diola ezagutarazi du udalak. Datorren urtean berriz ere lehiaketara aterako ditu Udako Txokoak.



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

## Burujabe

Euskal esaldi zaharra erabat desitxuratuz, askok esan ohi dute izenak sortzen duela izana. Horrekin, esan nahi dena da hizkuntzaren esparruan egiten denarekin eraikitzen eta aldatzen dela errealitatea. Gauzak irauli nahi dituzten horiek, esan beharrik ez dago, lengoaiaren eremu osoa (hizkera, idazkera...) hartu izan dutela aurreneko borroka-toki bezala. Gu gazte ginela, euskal tradizioan sendotutako *Buruaren jabe izan* esamoldea herrigintzarako erabiltzen genuenean, orduko iraultzaileek zentzurik gabeko hitza zela erantzuten zuten, borroka bizkortzeko baliorik ez zuena. *Burujabetza* hitza zokoratuta zeukaten garai hartan. Matxinada-zale ez ginenekin identifikatzen zen, gainera.

Gatazka, lehen lehenik, hizkuntzaren baitan piztu behar zen orduan, eta hitzek aurkariarentzat gaindiezin litzatekeen mugarrira argi markatu behar zuten. Baina, ez da egia izenak izana egiten duenik. Izena, izanaren itzala besterik ez da. Deitura jartzeagatik ere, hutsa dena ezin baita ezertan gauzatu.

Hala eta guztiz, indarberrituta omen dator berriro burujabetza. Lehen baztertuta eduki zutenen eskutik badator ere, guztiz poztekoa. Boladan jarri den hitza ote? Nonbait, orain denak behar du burujabea izan. Herria burujabea, elikadura burujabea, energia burujabea, merkataritza burujabea... Baina, horiek guztiek ez daukate bururik, beraz nekez jabetu edo arduratu daitezke beren buruaren gorabeheraz. Edozein alorretan burujabetzaz jokatu ahal izateko ezinbestekoa baita bere buruaren jabe izateko gai den sujetu (subjektu) bakarra, gizakia, sail horietan aritzea. Horregatik, euskal seneko tradizioetik begiratuta, ez dago herri burujaberik herritar burujaberik gabe.

### 'NEURE KABUZ' ATALA

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ  
**JEXUX ARTETXE** | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA  
 LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS



VIRGEN DE GUADALUPE EXTREMADURA ETXEA

## Extremadura, Donostian

Extremadurako Etxeen 37. Lurraldeko Topaketan parte hartu du Virgen de Guadalupe, Donostiako Konstituzio plazan. Ez da Lasarte-Oriako ordezkari bakarra izan, emanaldiak egin baitituzte Erketz EDT dantza taldeak, Semblante Andaluz elkarteak eta Amaia Gonzalez Caballero akademiak. Bitartean, Espainiako lurralde horretako produktu ezagunenak saldu dituzte postuetan.

## PATXINTXI SARIAK

EKAINAK 28 | 12.15

Herriko 65 urtetik gorako pertsona maitagarri eta goxoena sarituko ditugu. Proposatu zure hautagaiak ekainaren 15era arte



## MAKARRONADA ETA BUSTI BLAI JAIA

EKAINAK 28

12:30 |  
 TXUPINAREN ONDOREN  
 ELKARTUKO GARA

13:00 |  
 KALEJIRA BASAUNDIRA

14:00 |  
 MAKARROI JAN HERRIKOIA  
 ONDOREN |  
 UR JOLASAK

2011-2014 urteen artean jaiotako gazteentzat. Txartelak salgai Ttakunen bulegoan 3 eurotan

## SORGIN DANTZA

EKAINAK 28 | 16:30

ENTSEGUAK  
 EKAINAK 8, 13, 15, 20  
 eta 22  
 20:00-21:00  
 Okendo plazan  
 (eguraldi txarra eginez  
 gero, Sasoeta eskolako  
 gimnasioan)

## AFARI HERRIKOIA

EKAINAK 28 | 21:00

MENUA: Entsalada, oilaskoa, ogia, edaria, postrea eta kafea

Txartelak salgai Ttakunen bulegoan 25 eurotan.

# Lasartearra elkarteak, lasarteoriatarrei irekita

Bost hamarkada betetzea ez da makala eta hori ospatze aldera, egitarau oparoa prestatu du Lasartearra elkarteak. Bihar, hilak 10, futbol partida bat jokatuko dute Texasek eta Ostadarrek; ondoren, hitzaldi bat egingo dute herriko jokalariei eta entrenatzaile profesionalak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasartearra elkartearen zuzendaritza taldeko hiru kideak egin diote harrera kazetariari: Txomin Balza lehendakariak, Iñaki Garcia idazkariak eta Iñaki Gorostegi bokalak, Erribera kaleko 10. zenbakiko egoitzan. Goxoa eta dotorea da barrualdea: sukalde berria, argazki historikoak, eta, batez ere, taillatutako egurra. Balzak azaldu duenez, 1983an berreraiki egin behar izan zuten elkarteak, uholdeen eraginez. Ur asko sartu zen, ia metro eta erdiko garaierara iritsi arte. "Urruzola anaien aroztegia eta Patricio Madoz bazkidea arduratu ziren lan hori guztia egiteaz; azken horrek landu zuen egurra".

Elkarteak hamar urte lehenago inauguratu zuten, 1973ko uztailaren 31n. "Data ofiziala da hori, gobernadore zibilak orduan eman zuelako irekitzeko baimena, nahiz eta ekainerako prest egon eta zabaldu". Balzak jakinarazi du Lasartearra futbol klubaren egitura baliatu zutela ateak ireki ahal izateko, frankismoaren azken urteetan ezin zelako edozein erataratu sortu elkarte bat. Hala, hasieran kirol izaera izan zuen eta urte batzuk geroago bilakatu zen elkarte gastronomiko.

1973ko uztail amaieran 110 bazkide zituen Lasartearra,



Txomin Balza eta Iñaki Gorostegi, Lasartearraren bandera eskuetan dutela. TXINTXARRI

denak gizonak. Gaur-gaurkoz ere denak dira halakoak, baina gutxiago, 103. Horietatik hamazazpi 50 urte daramatzate. Omenalditxo bat egingo diete horiei guztiei irailaren 24an, bazkideen egunean.

## Estatutu aldaketa

Lasartearrako bazkide guztiak oraindik gizonak izanagatik, Balzak azpimarratu du emakumeek ere aukera dutela elkartearen kide izateko, 2011n estatutuak aldatu zituztenetik. Horretara animatu dituzte: "Gaur

egungo zuzendaritza taldea, ni barne, oso alde dago". Jakinarazi du maiatzaren 12an egin zuten bertso afarian (Ane Labaka eta Lierni Rekondo herritarrek aritu zirentzat) bi eskaera jaso zituztela. "Espero dut arazorik ez egotea. Gainera, Anekin [Labaka] apustua egin nuen: datorren urtean bazkideen argazkia eta izen-abizenak erakusten dituen koadroan bi emakume horiek badaude, berriro etorriko dela abestera". Itxaropentsu dago lehendakaria, duela hamar urte inguru

gertatutakoaren arantzaxoa kendu ahal izateko: "Emakume batek bazkide izan nahi zuen baina ezetz esan zion orduko zuzendaritza taldeak, kideen boto gehientsuenak onartzearen aurkakoak izan ziren".

Bazkide berri guztiak urtarrilean sartzen dira eta ez dute zertan gaur egun kide direnen familiakoak izan behar. "Tokiak baditugu eta edonork egin dezake eskaera, gure egoitzara etorrira. Bi bazkideren bermea behar dute horretarako". Kideren bat hiltzen bada, hori bai, ez dute urteko lehen hilabetera arte itxaroten: ahaideren batek hartzen du bere tokia.

## Maiatzetik urrira arte

Esan bezala, Lasartearra 50 urte beteko ditu aurten. Urtebetetze egun ofiziala uztailaren 31 izango bada ere, lehenago hasi dira urtemuga berezi hori ospatzen. Francisco Javier eta Aitor Peña aita-emeek irabazi duten mus txapelketa eta lehen aipatutako bertso afaria. Bihar, hilak 10, larunbata, bere jatorriari keinu bat egingo dio, futbolarekin lotura duten bi jarduerara aurrera eramanda: 10:15ean lagunarteko norgehiagoka bat jokatuko dute Texas Lasartearra eta Ostadarrek, Michelinen. Ondoren, bi taldeetako jokalariek hirugarren denbora egingo dute, errugbian bezala. Hiru ordu geroago, Antonio Mercero gunean elkarteko kirol horretan aritu edo aritzen diren profesional batzuk, hitzaldi bat egingo dute. Mikel Etxarri entrenatzaileak moderatuko du.

Lasartearra makina bat ekimen egingo ditu urrira arte. Alboko zutabeen kontsulta ditzakezue horiek guztiak. Lehendakariak herritar guztiak animatu ditu jardueretan parte hartzera.

## Urteurreneko jarduerak

### Hilak 10, larunbata

- **10:15.** Texas Lasartearra-Ostadar futbol partida, Michelingo zelaian. Ondoren, hirugarren denbora egingo dute.
- **13:15.** Lasarte-Oriako jokalariei eta entrenatzaile ohi batzuen arteko hitzaldia, Antonio Mercero gunean. Elkartearen bazkalduko dute gero.

### Uztailak 31, astelehena

- Jai txiki bat ospatuko dute elkartearen bazkideek.

### Irailak 9, larunbata

- **12:00.** Danborrada, Lasartearraren egoitzatik (Erribera kalea, 10) hasita.

### Irailaren 18tik 22ra

- Aste gastronomikoa, Lasartearraren egoitzan.

### Irailak 24, igandea, bazkidearen eguna

- Bazkideentzat: hil diren kideak oroitzeko meza, poteoa Benta Zaharreko Mutil Alaiekin taldearekin eta bazkaria. 50 urte bazkide gisa daramatenak omentuko dituzte gero.
- **13:00.** Herritar guztientzat, Erketz EDTren emanaldia, hamaiketako eta gaztelu puzgarriak umeentzat, Zumaburu plazan.

### Urriak 28, larunbata

- **19:00.** Alboka eta Zero Setteren kontzertua. Sarrera, doan.

## Arrieskalletak 16 urte bete ditu

Arrieskalletako bazkideek elkartearen 16. urteurrena ospatu dute, Kale Nagusiko egoitzan. Giro ederrean, hamaiketako egin dute 40-50 pertsona inguruk: patata tortilla, hestebete iberikoak, gildak, errusiar entsalada eta postre gozoak.

Jennifer Sanchez da Arrieskalletako lehendakaria gaur egun, eta, lehendakariordea, Jon Antxordoki.



ARRIESKALLETA ELKARTEA

## Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera

Buruntzaldeko sei udalek jakinarazi dute martxan jarri dutela Gidabaimena Euskaraz egitasmoa, eskualdeko autoeskolekin elkarlanean: Bengoetxea (Andoain); Hernani, Lagunak eta Otamendi (Hernani); Mugica (Lasarte-Oria); eta Solozabal (Urnieta eta Usurbil). Horren bidez, ikasle gazteek lizentzia horren atal teorikoa

euskaraz ateratzea sustatu nahi dute, 400 euroko zortzi sari banatuta. Azterketa gainditzen duten guztiak sartuko dira zozketan.

Udalak 2010ean hasi ziren egitasmo hori sustatzen eta orduz geroztik 1.252 ikasle atera dute gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz. Esan bezala, aurten ere aukera emango diote horretarako, eta 18 urte bete berri dituzten herritarren etxetara eskutitzak bidaltzen ari dira.

# Hitz eta irudien artisauak

Tik-tak, tik-tak...Hasi da atzerako kontaketa. Hilaren 18an estreinatuko du Ihitten elkarteak bere lan "kuttuna", 'Lasarte-Oria: istorio zumez egina' dokumentala. Herriko zenbait emakumeren lekukotzak jaso, eta, zumearekin nola, elkarri lotu, saretu eta ehundu egin ditu

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Hilabete honetan ez da erraza agendan toki bat egitea, baina merezi du 18ko eta/edo 22ko arratsaldea(k) gordetzea Ihitten elkarteak ondu duen *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala ikustera joateko. Estreinaldirako egun gutxi falta direnean ez da TXINTXARRI spoiler-ak egiten hasiko, falta zena, baina ikus-entzunezkoen alorrean lan egiten duten herritarren talde horretako zenbait kiderekin elkartu da, kolektibo horren lan "kuttunari" buruz gehiago jakiteko. Lasarte-Oriako Udalak eta Emakunde babestu dute proiektua. Isa Fernandez de Agirre, Idoia Telleria, Inge Mendioroz, Uxune Iparragirre eta Idoia Garzesek hitz egin dute kide guztien izenean. Kontatu dute hamahiru direla guztira, eta beso-zabalik hartuko dituztela gehiago. "Prest gaude herritar gehiagorekin saretzeko, proiektuak sortzeko eta lantzeko; seguru badaudela gure alor berean lanean dabilzanak, ikasten ari direnak edo asmoa dutenak".

Nola diren gauzak: pandemia garaian elkartzen hasi ziren ikus-entzunezkoen bueltan lan egiten duten zenbait emakume lasarteoriatar, saretzen, distantzia sozialak eta elkarren artean mantendu beharreko tartear eguneroko ogia zirenean. "Gazte zein heldu, hasiberri nahiz beterano, kezka, gogo eta helburu berdintsuak partekatzen genituela ikusi genuenean, batzea eta elkartzea erabaki genuen, irudia eta hitza lanabes hartuta", gogoratu dute. Ia une horretan bertan izan zuten aurkeztera doazen dokumentala mamitu duen ideia: gure herriaren bilakaera, identitatea eta beste



'Lasarte-Oria: istorio zumez egina' dokumentalaren kartela. IHITTEN ELKARTEA

gai ugari jorratzea, horren guztiaren lekuko izan, izaten ari eta izango diren herriko emakume batzuen ikuspuntutik. "Isildutako ahotsak argitara atera ditugu gure herriko historia osatzeko: hiru belaunaldi desberdinetakoak dira, Lasarten jaiotakoak batzuk, Orian besteak, Lasarte-Orian gazteenak, 50. eta 60. hamarkadetan hona bizitzera etorri zirenak eta azken immigrazio mugimenduaren eraginez gaur egun bizilagun ditugunak. Kontrasteak egin ditugu, batzuek bilakaeraz hitz

egin dute eta besteek gaur egun herria nola ikusten duten". Horien guztien lekukotzak jaso, elkarri lotu, saretu, ehundu eta txirikordatu dituzte, "saski trinko bat" eratu arte. Hori guztia, beraien perspektibatik, euskaraz eta feminisमतik. "Denok dakigu ez dagoela ikuspuntu bakar bat, egia bakar bat ez dagoen gisan; begirada nora zuzendu, fokua non ipini...Hor dago-eta koska. Gure begirada eman nahi dugu, ez hobea edo politagoa delako, gurea delako baizik".

Elkarrizketak irau bitartean ezer errepikatu badute, ahalik eta argien gera dadin, hau izan da: "Dokumentala ez da Lasarte-Oriaren historiaren errepaso kronologiko bat, baizik eta gure herriaren bilakaera nolako izan den gaur egun garenera iritsi arte, bertan bizi diren zenbait emakumeren bizipen eta ikuspuntutik, bakoitzak beretik". Ildo horretatik, azpimarratu dute ikus-entzunezkoan bildu dituzten istorioek herriaren historia ere badirela, eta ikustera joaten direnek udalerrinari buruzko kontu "harrigarri" ugariren berri izango dutela.

Artikuluaren hasieran gainera aipatutakoa zehazte aldera, hilaren 18an estreinatuko dute *Lasarte-Oria: istorio zumez egina*, kultur etxean, 19:00etan. *Play* botoia sakatu aurretik, egileek lana aurkeztuko dute. Bigarren pase bat egingo dute egun batzuk geroago, 22an, 18:00etan, Antonio Mercero gunean. Horretan ikus-entzunezkoa proiektatuko dute aurrena, eta tertuliatxo bat egin gero, bertaratutakoekin. Lekukotzak eman dituzten emakumeetako bi gonbidatuko dituzte.

Ihitteneko kideek ez dute lanaren ibilbidea bi emanaldi horietara mugatu nahi. "Ikusi dugu memoriaren hutsune bat badagoela herri honetan, ez dela transmititua izan, edo, bestela esanda, belaunaldi belaunaldi jasotakoa oso partziala izan dela. Historia osatzen lagundu nahi dugu dokumentalarekin. Izan ere, nork idatzi izan du, eta nor isilarazi izan dute?".

## "Zer kontatuko dizut nik, baina?"

Ikus-entzunezko bakarra estreinatuko dute, baina jaso duten material guztia erabili izan balute, bilduma luzeago baten lehenengo atala litzateke. "Hasi ginenean buruan genuenetik bildu dugunera artekoaren aldea nabarmena izan da eta pozik gaude horregatik, baina hau ere pentsatu izan dugu, zenbat istorio ote dauden oraindik kontatu gabe; bospasei dokumental egiteko adina bai". Onartu dute ez dela erraza izan dena jostea, zumetzea, hastapenetan zirriborroak, apunteak eta eskemak marrazteko erabiltzen diren paperek "dena" jasaten dutelako, baina "gustura" daude emaitzarekin eta jendartean erakusteko irrikaz.

Dokumentalgileen gurutzeetako bat izan ohi da une, hitz, esaldi

## Bi emanaldi eta tertulia bat

*Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala ikusteko bi aukera izango dituzte herritarrek. Egileek jakinarazi dute sarrera doakoa dela eta ez dutela gonbidapenik eskatu beharko.

### Hilak 18, igandea

- **19:00.** Manuel Lekuona Kultur Etxean. Eman aurretik egindako lana aurkeztuko dute Ihitten elkarteak kideek.

### Hilak 22, osteguna

- **18:00.** Antonio Mercero gunean. Proiektzioaren ostean, tertuliatxo bat egingo dute.


### Harremanetarako

- **Helbide elektronikoa:** [ihittenikusentzunak@gmail.com](mailto:ihittenikusentzunak@gmail.com).

- **Instagram eta Facebook kontuak:** @ihittenelkartea eta @Ihitten.

Erne! Ihitteneko kideek aurreratu dute webgune berria egiten ari direla eta laster izango dutela prest.

### Aurrerapen bideoa



eta grabatutako zatiak kanpoan utzi behar izatea. Ihittenekoei ere gertatu zaie hori, baina inork ez die kenduko dokumentalean azaltzen diren emakumeak elkarrizketatzerakoan bizi, entzun eta partekatutakoa. "Pasa zaigu, helduagoak direnekin batez ere, haiek hau esatea: 'Zer kontatuko dizut nik, baina?'. 'Arratsalde pasa' joan direla esan, baina hitz egiten hasi, eta gu harrituta gelditu; orduak eta orduak pasako genituzke haiek entzuten".

# Asterik onena

## Ikasturtean landutakoa erakusten ari dira ikasleak

Kukukako ikasle eta irakasleak 21. Antzerki eta Dantza Astearen azken txanpan sartu dira: gaurko eta biharko (hilak 9 eta 10) emanaldiak besterik ez zaizkie falta. LH4 mailatik hasi eta DH3ra arte, *Txano&Gorritxu 3.0*, *Komun publikoa* eta *Menua* antzezlaren emanaldiak egingo dituzte kultur etxean gaur, goizez (10:00etan eta 13:00etan) nahiz arratsaldez (19:00etan). Dantza alorreko diziplinetako bat den Sorkuntza taldekoak, berriz, goizez ariko dira, 10:00etan eta 13:00etan. LH3-5-6, DBH1-2 eta DBH3-4 taldeak igoko dira oholtza gainera. Bihar, aldiz, Euskal Dantza eta Sorkuntza lantzen ari diren txanda izango da, 19:00etatik aurrera.

Ikasturteko aste onenari hilaren 5ean ekin zioten ikasle eta irakasleek, erdigunean barrena desfile koloretsu bat eginda. Kultur etxe paretik abiatu, zenbait kale zeharkatu eta Okendo plazan amaitu zuten. Hurrengo hiru egunetan makina bat antzezlari oholzaratu dituzte ikasle gazteek, parean zituzten lagun, guraso eta bestelako senideen gozamenerako: *Ipuinak kontatuko ditugu*, *Perez Patruila*, *Mimoa*, *Kanixiuaua parkea*, *Clown olimpiadak*, *Eskeiprruna* eta beste hainbat. Bestalde, antzerki eta eskola horretako arduradunek gogorarazi dute zabalik dagoela datorren kurtsorako aurrematrikulatzeko epea. Ohiko modalitate eta taldeez gain, Euskal Dantza eta gorputz espresioa uzartuko dituen ikastaro bat eskainiko dute LH2 eta 3ko gaztetxoentzat.



Kultur etxetik abiatu ziren desfilean Kukukako ikasle eta irakasleak. Erdigunea zeharkatu eta Okendo plazan bukatu zuten. TXINTXARRI



'Hiru txerrikoak' ipuina antzeztu zuen gazteko talde honek. TXINTXARRI



'Perez Patruila' antzezlaren emanaldiaren une bat. TXINTXARRI



'Eskeiprruna' antzezlana ikusteko aukera izan dute ikus-entzuleek. TXINTXARRI



'Nire ametsa' obra ere erakutsi diete ikaskideei antzele gazteek. TXINTXARRI

# Badoa Teresa, badator uda

Adin guztientzako jarduerak egin dituzte Zabaletako jaietan



Gaztetxo bat, buruhandiarendik ihesean. LOZET elkarteko lagunek igo zituzten Zabaletara. TXINTXARRI



Auzoan barrena kalejira egin eta gero iritsi zen plazara Teresa Sorgiña. TXINTXARRI



Zabaletako I. Emakumeen Txapelketako finalak jokatu zituzten hilaren 3an, arratsaldean. TXINTXARRI



Alejandro Romo zenaren omenaldian hunkituta parte hartu zuten arribetako bik, Natic eta Mari Carmenek. TXIN.



Elektropottote taldeak dantzan jarri zituen txosna inguruan zebiltzan herritarrek. TXINTXARRI





Rukula taldeak 'Traganarru' album argitaratu berria aurkeztu zuen. Jendetza batu zen Zabaletan. TXINTXARRI



Energiaz betetako kontzertu bat eman zuen DJ Fantasiak, hilaren 3tik 4a arteko parranda gauean. TXINTXARRI



Marcela Aranak (eskuinetik hasita bigarren) irabazi zuen patata tortilla txapelketa. Bigarren izan zen Malu Castresana (ezkerretik hasita bigarren) eta hirugarren Ignacio Alberdi (eskuinetik hasita hirugarren). TXINTXARRI



Proba misto nagusiko partaideek talde argazkia atera zuten. Talde horiak irabazi zuen: Maitane eta Unai (trontza), Ander (bxingak), Maria (lokobxak), Argoitz (giza proba), Amalur (harria jasotzen), eta Asier (korrika). TXINTXARRI

## Erasorik onartuko ez dutela adierazi dute

Zabaleta Auzolan elkarteak deituta, auzotar askok elkarretaratzea egin zuten hilaren 4an, festen azken egunean, bezperako rock gauean DJ Fantasiak pairatutako eraso homofobo eta matxistak "irmoki" salatzeke. Azpimarratu zuten festetan parte hartzen duten guztien "askatasuna eta eskubideak babestu eta aldarrikatu" egiten dituztela.

Komunikatu bat irakurri zuten elkartekoek. Lehen aipatutakoaz gain, nabarmendu zuten "elkarlan eta errespetuzko jai batzuen alde" lan egiten dutela Zabaletan, eta ez dutela onartuko larunbateko parranda gauean gertatu zirenak bezalako erasorik, ez bestelakorik ere. "Horrelako gertaerak ez dute tokirik ez

Zabaletan ez inon. Gora Zabaletako festa askeak".

### DJ Fantasiaren oharra

Instagram sare soziala erabili du DJ Fantasiak gertatutakoari buruz adierazpenak egiteko. "Abestiak jartzen ari ginela, ikusle batzuk oholtzara igo ziren gure baimenik gabe eta jarrera oldarkorraz. Aldez aurretik atentzioa eurengantzeko saiakerak egin zituzten, isekazko keinuak eta iruzkin matxista eta homofoboak eginda". Jarrera hori emanaldi osoan jasan behar izanda ere, ikuskizunarekin jarraitzea erabaki zuten. "Babestu gintuzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu; tinko eta irribarretsu jarraituko dugu gurearekin, orain arte bezala".



Zabaletako auzotarrek elkarretaratzea egin zuten festetako azken egunean. ISAAC FARRE



Gipuzkoako Open Sarian (ezker eta erdian) eta Udako Sarian (eskuin) lehiatu ziren igerilarietako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

# Igerilariak, finalak eta dominak metatzen

Lasarte-Oriako igerilariak bi hitzordu izan dituzte: Gipuzkoako Open Saria eta Gipuzkoako Udako Saria. Markak ondu eta podiumera igo dira herritarrek. Hilaren 10ean, 32. Lasarte Saria jokatuko dute Maialen Chourraut kiroldegian, Buruntzaldea IKT antolatuta

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko zein herriko igerilariak Gipuzkoako Open Sarian parte hartu zuten hilaren 3an eta 4an. Ederki jardun ziren eta marka ugari ondu zituzten. Podiumean ere izan ziren lasarteoriatarrek eta domina batzuk jantzi zituzten.

Bidasoa XXI taldean dauden Ainhoa eta Leire Fernandez ahizpek sari sorta metatu zuten Gipuzkoako txapelketan.

Ainhoa garaile izan zen 100 eta 200 m. bular lehiatan eta 50 m. bular zein 50 eta 100 m. tximeleta probetan hirugarren koskara igo zen.

Leirek, aldiz, urrezko garaikurra eraman zuen 50 m. bizkar eta 200 m. lau estilo saioetan eta 200 m. bizkar proban podiumeko bigarren mailara igo zen.

Buruntzaldea IKTko Miren Sarobe, June Lopez, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui, Nahia Zudaire, Unai G. Somovilla eta Izaro Audikana igerilariak ere parte hartu zuten lehiaketan eta lau - Garazi Etxeberria, Miren Sarobe, Nahia Zudaire eta June Lopez - arratsaldeko finaletan lehiatu ziren.

Kide bakarra igo zen podiumera, Garazi Etxeberria; 200 m. lau

estilo junior mailako txapelkunorde (02.59,15) izan zen. Etxeberriak, gainera, 50 m. libre zein 100 m. bular probako finaletan ere egin zuen igeri.

Miren Sarobe eta June Lopez ere arratsaldeko finaletan izan ziren. Lehena 100 m. libre probako lehiatan izan zen eta Lopez, berriz, 100 zein 200 m. bizkar eta 200 m. libreetan. Saio horietan guztietan goizeko jardunaldian marka pertsonalak ondu zituzten eta Junek gainera, 200 m. bizkar probako finalean ere erregistro berria egin zuen, 02.36,95ean.

Horiez gain, Nahia Zudaire 100 m. bizkar eta 100 m. tximeleta

probetako finaletan izan zen. Zudairek azken asteetan lehiaketa ugari izan dituen, larunbateko saioan soilik lehiatzea erabaki zuen. Nahiz eta markarik ez ondu, Zubietako igerilariak egindako lanarekin gustura amaitu zuten Buruntzaldea IKTko prestatzaileek.

## Udako Saria

Lehiaketa horretan parte hartzerik izan ez zuten Buruntzaldea IKTko igerilariak Gipuzkoako Udako Saria lehiatu zuten, Andoaino Allurralde kiroldegian.

Marka pertsonal ugari ontzeaz gain, infantil mailako podiumean igo ziren taldeko gaztetxoak lau alditan. Nora Miguelezek (50 m. tximeleta) eta Mayi Gorostegui (100 m. lau estilo) zilarrezko domina jantzi zuten; Amaiur Iparragirrek (200 m. libre) eta Irati Etxeberriak (200 m. lau estilo), aldiz, brontzea.

Estilo libreko zein lau estiloetako 4x50 m. errelebo taldeak ere lehen postuetan izan ziren. Librekoan bigarren postua eskuratu zuten eta estiloetakoan, berriz, brontzezkoa.

## Lasarte Saria

Buruntzaldea IKTko igerilari guztiek hitzordu garrantzitsua izango dute hilaren 10ean, Lasarte Saria. Goizean 10:00etan kanporaketak hasiko dira Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan. Arratsaldean, berriz, finalak izango dira, 16:00etatik aurrera.

Berrikuntza modura, igeriketa zein igeriketa egokituko kategorietako kirolariak batera egingo dute lehia eta genero bereizketarik gabe. Era honetara, etxeko taldeko kideek Zarautz Balea IK, Hernani KE, AD Gaude KE, Konporta eta Amaya CD taldeko igerilariak aurre egingo diete.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

KADETE 1. MAILA, KOPA, FINALA

**Ostadar SKT B - Aizkorri FT C**  
Larunbata. 11:00. Arratzain, Villabonan.

50 URTEURRENA

**Lasartearra elkartean 50. urteurreneko ospakizunen barruan, lagunarteko neurketa:**  
**Ostadar SKT - Texas Lasartearra CF**  
Larunbata. 10:15. Michelin kirol gunean.

PASAIKO TORNEOA

**Texas Lasartearra taldeko benjamin eta alebinek Pasaiko Torneoa jokatuko dute.**

Larunbata eta igandea. Jesus Mari Zamora zelaia, Erreterian.

### IGERIKETA

LASARTE SARIA

**Buruntzaldea IKTko igerilariak Lasarteko 32. Saria lehiatuko dute.**  
Larunbata. Egun osoa. Maialen Chourraut kiroldegian.

### ATLETISMOA

POBRA LIBREAK

**Ostadar SKTko eta herriko atletek markak egiteko proba libreak jokatuko dituzte.**  
Larunbata. 16:00. Ordizian.

### PILOTA

JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA

**Behar Zana (Arruti) - Intza (Olazabal)**  
Ostirala. 17:00.(3. partida) Amasa, Villabonan.

SAN PEDROETAKO TXAPELKETA

**Esku pilotako sanpedroetako txapelketako jardunaldia.**  
Larunbata eta igandea. 10:30. Loidibarren pilotalekuan.

### ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

**Udako denboraldiko hirugarren jardunaldia lehiatuko dute.**  
Osteguna. 11:15. Hipodromoa, Donostian.

### ARRAUNA

EUSKADIKO TXAPELKETA

**Lasarte-Oriako arraunlariak dituzten Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia ontziek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.**  
Igandea. 11:00. Ondarroa, Bizkaian.

# LOKEko tenis jokalariak, Gipuzkoa zein Euskadiko lehiatan

Infantil mailan, bakarka zein taldeka arituta, Gipuzkoako txapelkun izan dira herriko jokalariak

## Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko Tenis atalak denboraldia amaitu berri du. Aurten infantil mailan lortu dituzte tenislariak garaipen gehienak. Gabriele Fernandez eta Nerea Odriozola - jaso zuten Gipuzkoako eskolarteko

txapelketako garaile izan zen bakarka. Eremuko taldekako lehiaketan ere Lasarte-Oriako ordezkariak - Gabriele Fernandez eta Nerea Odriozola - jaso zuten garaikurra.

Fernandorenak, gainera, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen parte hartu zuen eta hirugarren postua erdietsi zuen bakarka; binaka, berriz, garaile izan zen.

Horrez gain, Mariasun Yurrita taldeko arduradunak master mailako Espainiako txapelketa jokatu du, Mallorcan, Balear Uharteetan, Euskadiko selekzioarekin. Finalerdietara iritsi ziren eta gerora irabazle izango zen Madrilen aurka galdu zuten finala jokatzeko aukera.



LOKEko infantil taldea (ezkerrean) eta Mariasun Yurrita (eskuinean). LOKE TENIS

# LOKEko gimnastak, Euskadiko podiumean

Paula Martinez, Maitane Sarmiento eta Maialen Aranzabe gimnastek maila eta tresna ezberdinetako dominak eskuratu dituzte Euskadiko txapelketan: urrezko bat, zilarrezko bat eta hiru brontzezko. Martinez pilota laneko Euskadiko txapeladun da

## Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek hitzordu garrantzitsua izan zuten maiatzaren 28an, Leioan eta hilaren 3an, Durango; Euskadiko txapelketa jokatu zuten. LOKEko kideek denetarik emaitzak izan zituzten; bost domina ere jantzi zituzten.

Leioan, Paula Martinez Senior B mailan lehiatu zen xingola eta pilotarekin. Lan ederra egun zuen azken tresna horrekin eta Euskadiko txapeladun berria da. Horri esker, sailkapen orokorreko bigarren sailkatu zen.

Durangoan ere lehen postuetan sailkatu ziren LOKEko gimnastak.



Martinez, Sarmiento eta Aranzabe, Euskadiko txapelketako podiumean. LOKE GIMNASTIKA

Podium orokorrera igo zen Maitane Sarmiento kadete A mailako lehiari. Brontzezko domina jantzi zuen gimnastak. Ez zen sari bakarra izan. Pilota

lanean ere hirugarren izan baitzen Sarmiento. Azken domina Maialen Aranzabek lortu zuen kadete B mailako mazoan lehiari, brontzezkoa.



Eguzki AF eta Moprisala Toledo taldeak, neurketa baino lehen. MOPRISALA TOLEDO

## Eguzkik ezin izan du aurrera egin Espainiako txapelketan

Emaitzek lagundu ez duten arren, esperientzia polita eta aberasgarria bizi izan du infantil taldeak Toledon

## Txintxarri

Eguzki AFko infantil taldeko arduradunek bazekiten zaila izango zela Espainiako txapelketako lauko finalean egotea. Hala ere, infantil taldeak guztia eman du hilaren 2tik 5era Toledon jokatu zen lehiaketan. CD Xota, Equipe Sport Zaragoza eta Moprisala Toledo taldeekin borrokatu zuen finalerako txartela

eskuratzeko eta aragoiarrek eraman zuten saria.

Lehen neurketan, CD Xota nafarren aurka, Lasarte-Oriako taldeak ez zuen denborarik izan kokatzeko eta hasiberria izatea ordaindu zuen lehen minutuetan; aurkariak lau gol sartu zituen. Horren ostean gogor ekinez, 4-3ko markagailuarekin iritsi ziren atsedenaldira. Baina

bigarren zatia lehenengoaren antzera hasi zen; beste hiru gol egin zituzten nafarrek. Ostean, neurketa orekatu zen eta Gorka Redondoren gazteek lau gol gehiago sartu zituzten. Azken minutuetan ordea, aldea areagotu egin zuen Xotak eta 15-7koa izan zen emaitza.

Equipe Sport Zaragoza izan zen bigarren aurkaria. Lasarte-Oriako gaztetxoek ederki egin zioten aurre Zaragozako taldeari; atsedenaldira bana berdinduta iritsi ziren. Bigarren zatian, aragoiarrek bigarren gola egin eta gogotik borrokatu arren, Eguzkik ezin izan zuen markagailua berdindu. Azken minutuetan egindako herritarren huts batzuen ondorioz, 1-4 amaitu zen partida.

Azken norgehiagokan Moprisala Toledo izan zuen aurrez aurre. Etxeko taldea nagusi izan zen eta garaipena erdietsi zuen, 16-4.

"Zaila zen hurrengo fasera sailkatzea. Talde gogorak ziren. Emaitzak aldeko izan ez arren, esperientzia ederra bizi izan dugu", adierazi du Redondo prestatzaileak.

## Errugbia eta aitortza, Izar Beltzak oroimenezkoan

Beltzak RTko sortzaileak omendu ostean, Atletico San Sebastian izan da garaile errugbi norgehiagokan

## Txintxarri

Errugbizaleek hitzordu berezia izan zuten hilaren 3an Michelin kirol gunean, izan ere, Beltzak Errugbi Taldeak antolatutako Izar Beltzak oroimenezkoa jokatu baitzuten. Errugbi eskolak azken festa ospatu zuen goizean, eta arratsaldean, Atletico San Sebastian eta herriko jokalariek osatutako Lasarteorians taldearen arteko norgehiagoka jokatu dute.

Beltzak taldeko sortzaile, jokalaria eta zuzendari izandako Aitor Urangaren eta taldeko lehen kapitain eta zuzendaritzako kide zen Jorge Perez Gotxo-ren omenez jokatzen dute neurketa. Plaka bana eman zieten Perezen eta Urangaren senideei.

Oroigarri horiekin batera, egurrezko beste ikur batzuk ere bazeuden mahai gainean. Bereziarena, iaz egindako garaikurra, partiden irabazlearen izena duena atzeko aldean.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Lasarteoriansen azpian, Atletico San Sebastianena gehitu beharko dute, donostiarrak gailendu baitziren, 12-32. Neurketako arbitroei –Jon Ibisate, Joanes Arroyo eta Eneko Sanchez laguntzaileekin batera– ere aitortzatxo bat egin zieten.

Michelingo hirugarren denboraren ostean, Zubietako Yoko Garbi elkartean afaldu eta Zarautzeko Asti zelaian hirugarren denboraz arduratzen den taldeari aitortza egin zioten.



Taldearen sariak banatu zituzten bazkalostean. TEXAS LASARTEARRA

## Texas Lasartearra taldeak denboraldi amaiera ospatu du

Taldeetako jokalariek zein senideak bildu dira bazkari batean. Sariak banatu dituzte talde guztietan

## Txintxarri

Texas Lasartearra futbol taldeko jokalaria eta euren senitartekoek denboraldiari era ezin hobean eman zioten amaiera, bazkari batekin. Oriarte BHIko Landaberri eraikineko patioan 250 bat pertsona bildu ziren eta bazkalostean talde bakoitzeko entrenatzaileek dominak eta sariak eman zizkieten jokalariei. Agurrak ere izan ziren eta Pedro Trejok entrenatzaile maitatuaren saria jaso zuen.

Zuzendaritzako kideek eskerrak eman nahi dizkiete entrenatzaileei, "euren ardura eta maitasunagatik; hori gabe ezingo lirake jokalariek hain zoriontsu izan".

Eta hurrengo denboraldia prestatze aldera, hilaren 12tik 15era erakartze jardunaldiak egingo dituzte. Euren sare sozialetan argitaratu dituzte taldeen entrenamendu saioen egun eta ordutegiak.

# Urteurrenaren bukaera jendetsua

## Sail guztiak batu dira festan


Urteroko denboraldi amaierako festa egin du Ostadar SKTk, Michelin kirol gunean. Talde urdin-beltza murgilduta dabil bere 40. urteurrenaren ospakizunetan eta data biribil horren oroigarri berezi bat izan nahian, atal eta talde guztietako kideekin bi argazki egin dituzte drone batekin. Ondoren, ohikora bueltatu, eta sari banaketa egin dute. Kirolari onenaren saria jaso du Aitor Anabitarte saskibaloj jokalaria, eta Auzolan saria, Txema Valles kazetariak.



Ostadar SKTko atal guztiek argazki erraldoia egin zuten. Bertan 'Ostadar 40' irakur zitekeen. OSTADAR SKT/BEÑAT ARROYO



Sail ezberdinetako sarituak taldeko argazkian. TXINTXARRI



Aitor Anabitarte saskibaloj jokalaria jaso du Kirolari onenaren saria. TXINTXARRI



Auzolan saria Txema Valles 'El Diario Vasco'-ko kronikari ohiari eman diote. TXINTXARRI

### Emakumea eta kirolaz solasean

40. urteurrenaren harira hitzaldi sorta bat antolatu du Ostadar SKTk. Hilaren 1ean *Emakumea eta kirola* izan zen gogoetagaia Antonio Mercero gunean, eta herritar ugari bildu zen aretoan. Amaia Andresek, Ostadar Atletismo Eskolako arduraduna, eta emakumeek kirol munduan nola murgildu diren azaldu eta etxe barruko (Ostadar SKT) datuez hitz egin zien aretoan bildutakoiei, horiek genero arrakalaz ohartu asmoz. Andresekin batera, beste lau herritarrek ere hitz egin zuten



Ikusleak adi, Amaia Andresek azalduko datuei. TXINTXARRI

euren kirol ibilbide eta esperientziak; Naroa Furundarena lasterkariak, Leire Gartzia

futbolariak, Miren Zumeta ipar martxalariak eta Karmele Laso lasterkariak.



Kadete B taldea eta entrenatzaileak, denboraldi hasierako irudian. OSTADAR SKT

### Kadete taldea, kopako finalera

Ostadar SKTren kadete B taldeak ez du denboraldia amaitu oraindik. Hilaren 4an, Urkiren aurka kopako finalerdiak jokatu zituen Michelin kirol guneko zelaian. Bina berdindu ostean, penaltietan erabaki zuten garailea eta etxeko taldeak eraman zuen saria. Hilaren 10ean, Villabonan, Aizkorri FT Cren aurka neurtuko ditu indarrak finalean.



Boccia eta atletismo lehiaketetan parte hartu duten kideak. OSTADAR INKLUSIOA

## Inklusio taldeak ere, dominak

Ostadar Inklusio Taldeko partaideak Espainiako txapelketetan izan dira lehiari maiatzeko azken asteburuan. Ivan Sandonis eta Javi Camacho Valladoliden jokatu zuten Boccia txapelketan parte hartu zuten binakako BC3 mailan eta txapelkunorde izan ziren. Taldeko atletak Basaurira egin zuten bidaia. Ibai Altunak hiru zilarrezko domina eskuratu zituen 100, 200 eta 400 metro lasterketetan. Horrez gain, Ane Asensiok, Jon Mendozak eta Manex Pagolak marka ederrak egin zituzten.



Giroko porrako sarituak eta Patxi Larrañagako kideak banaketan. OSTADAR SKT

## Giroko porrak baditu irabazleak

Hilaren 5ean, Giroko porrako sariak banatu zituen Ostadar SKTk. 400 euroko saria *Landismo* txartelak eskuratu du eta *lñaki 6665* tiketak, aldiz, lortu du bigarren saria, 200 euro. Larrañaga harategiak ere jaso zuen saria puntu gehien lortu dituen denda izanagatik. Bukaera urdaiazpikoak banatu zituzten.



Ipar Martxako taldeko kideetako batzuk, ibilbide batean. OSTADAR IPAR MARTXA

## Saioen amaiera eta egun aldaketa

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek ere entrenamendu saioei eta irteera bereziei amaiera eman diete. Taldeko arduradunek hurrengo ikasturtera begira aldaketa bat jakinarazi dute, irailetik aurrera entrenamendu saioen eguna osteguna izango da.

# "Helburua Lasarte-Orian kirola sustatzea da"

**IMANOL BARDAJI** OSTADAR SKT-KO LEHENDAKARIA

Ostadar SKT sortu zenetik, elkartean lanean aritu da Imanol Bardaji herritarra; urte horietako askotan, lehendakari gisa. Harekin solastu gara elkartearen egoera ezagutzeko

**Nerea Eizagirre**  
**Zergatik sortu zen Ostadar?**

Ostadar 80. hamarkadan sortu zen, konkretuki 1983. urtean. Garai horretan ez genuen udaletxerik eta auzoen arteko harremana estutzeko asmoz I. areto futbol txapelketa herrikoia sortu zen, Gabi Valin eta Mikel Eskisabelek bultzatuta. Momentu horretan areto futbola modalitate nahiko berria zen eta txapelketak arrakasta handia lortu zuen. Handik gutxira, saskibalo txapelketa herrikoia, futbol atala...Gaur arte.

**Nola aldatu da kluba 40 urtetan?**

Asko aldatu da, gizartea eta denok bezala noski. Sustraiak mantentzea izan da gure helburuetako bat. Elkartea kirol talde bezala jaio zen arren, beti gure herriko balore soziokulturalek kezkatu izan gaituzte. Horregatik, kirolaz harago, horren alde ere lan egin dugu, gure leloak dioen moduan, *Herriarekin eta herriarentzat*, auzolanean. Hori dela-eta, elkarlanean aritzen gara beste elkarte askorekin: Euskararen Maratoia, Korrika, Tratu on bat, Bizipoza, herriko jaien antolatzaileak...Ahal dugun einean, gure herriaren aldeko proposamenen ondoan izango gara.

**Eta kirol arloan?**

Egungo Ostadarrek ez du zerikusirik garai batekoarekin. Ikaragarria da dugun mugimendua, astero ia mila kirolari mugitzen ditugu, batzuk eskoletan, besteak kirol federatuetan eta aisiako kirolean ere. Egun, bederatzi atal ditugu: Atletismo, Saskibaloia, Kirol inklusiboa, Boleibola, Futbola, Mendia, Ipar martxa, Bolo eta toka, Zikloturismoa eta, Beltzak-eko kideen eskutik, Ostadar-Beltzak errugbi eskola.



Imanol Bardaji. OSTADAR SKT

Gure kirol eskaintza oso zabala da, bai modalitateetan baita adin desberdinetzat ere. Izan ere, kirolari gazteenek 8 urte dituzte eta zaharrenak 80 urtetik gorakoak dira.

Azpiegiturari dagokionez hainbat arlotan profesionalizatu egin dugu kluba, eta 79 entrenatzaile ditugu, atal guztietakoak kontuan izanda. Datuak beldurgarriak dira, baina poliki-poliki bagoaz aurrera. **Harrobia ere ongi landu duzue eta maila ederra ematen ari dira kirol diziplina ezberdinetako taldeak. Pozgarria da zuentzat?**

Gure lehenengo helburua Lasarte-Orian kirola sustatzea da eta hortik aurrera lortzen ditugun emaitza guztiak ongi etorriak dira.

Esparru federatuan kirolari bakoitzak bere bidea egiten du, Errendimenduan edo Partehartzean, eta guretzat denak dira garrantzitsuak.

Baina egia da kirolari batzuek beste dimentsio bat ematen diotela klubari, batez ere banakako esparruari dagokionez. Adibidez: Naroa Furundarena, 23 urtez azpiko Espainiako txapelketa jausi hirukoitzean, Ander Goenaga mundialista surf egokituan, edo boleiboleko

nesken jubenileko taldea Gipuzkoako txapelkunorde izateak beste ikuspen bat ematen dizu, oso hunkigarria eta atsegina aldi berean. Meritu handia dute denek.

**Emakumeek gero eta presentzia gehiago dute kirolean. Ostadarren ere horrela izaten ari da?**

Igoera oso nabarmena izan da, aisialdiko kirolean, ipar martxarekin, eta federatuan, saskibaloia, atletismo eta boleibolarekin, emakumeak baitira atal horietako oinarria.

Ezinbestekoa da aukera berdintasuna esparru guztietan, baita kirolean ere, noski. Duela lau urte, klubeko eremu guztietan emakumearen presentzia eta parte hartzea sustatzeko proiektu bat bultzatu genuen eta oraindik martxan dago.

Kirolari, entrenatzaile, ataletako arduradun edo zuzendaritzako kide modura ahal diren emakume gehienek parte hartu eta inplikatzeko asmoa genuen. Emakumezko gehiago hurbildu behar dira erabaki postuetara, bai zuzendaritzara, bai entrenatzaile taldera... Horretan lanean ari gara.

**Etorkizuneko Ostadar elkartean pentsatzean, zer datorriz burura?**

Klubaren etorkizuna baikortasunez ikusten dut, oso herri dinamikoan gaude. Lasarteoriarrok asko baloratu behar dugu urtean zehar egiten diren jarduerak guztiak, herri anitza gara kulturalki, abegitsua, agian ez da polita, baina gurea da, Lasarte-Oria erakargarria da bertara iristen den jendearentzat. Daukagunaz gozatu behar dugu, herriko jaietatik hasita, sanpedroak eta Sorgin Jaiak.

**Elkarrizketa, osorik,  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian**


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK

**Iker**

Bizitzako une bakoitza poztetokoa izan dadila. Zorion etengabea opa dizut eta ez dadila inoiz osasuna eta maitasuna falta.

**Laura**

Zorionak polita!!! Jarrai dezazula gure biziak zure poztasunarekin betetzen. Zutaz oso harro gaude! Askok maite zaitugu Pedro, aita eta ama.

**Amets**

Zorionak Amets!!! Ekainaren 12an, 6 urte beteko dituzu. Txokolatezko 6 muxu handi handi familia osoaren partez.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 9	DE MIGUEL
LARUNBATA, 10	DE ORUE
IGANDEA, 11	DE ORUE
ASTELEHENA, 12	LASA
ASTEARTEA, 13	GIL
AZTEAZKENA, 14	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 15	URBISTONDO

**EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## OHARRA

**Bizipozaren paratxuta, galduta**

Lasarte-Oriako elkarteek osatutako Bizipoza taldeko paratxuta galduta dago. Jalgi tabernatik norbaitek jaso badu, edo nonbait paratxuta aurkitu badu, jar dadila mesedez harremanetan 652 74 87 17 telefonon.

Paratxuta Euskararen Maratoialdirako egin zuen taldeak eta urtean zehar herriko edozein eragilek erabiltzeko aukera du. Paratxuta argazkian azaltzen den moduan, koloretsua da eta elkartearen ilustrazioen serigrafia ditu. Telazko poltsa txuri baten barruan dago jaso eta poltsa txuriak ere serigrafiatutako ilustrazio koloretsuak ditu. Aldez aurretik mila esker.



## AZOKA TXIKIA

**ETXE BIZITZA****ERRENTAN EMAN**

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilta. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

**LANA****ESKAINZEA**

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta, ahal dela,

berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, lanaldi erdiz. Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02. Game Master bila gabilta. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestatutasuna eta Lasarte-Oriako izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-er

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun

baten bila gabilta. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

**ESKARIA**

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak

ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68. Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2

mekanizatua egin dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583. Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz.

Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583. Lan bila nabil interna, orduka edo asteburuetan.

Adineko pertsonak zaintzen eskarmentu handia dut. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38. Interna gisa egingo nuke lan, astelehenetik

igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurilaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gaez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

**SALEROSKETA****SALDU**

Su egurra saltzen da (haritz), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

**BESTELAKOAK****HEZKUNTZA**

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646 82 44 66

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatazaileak**

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Nikola  
Iraola, Xuban Urdaleta, Sergio  
Hernandez, Ander Hazas, Endika  
Merchan eta Gorka Morales.

**Informatika zerbitzuak**

IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

## OSTIRALA 9

**LASARTE-ORIA Erakusketa**  
Brancussi eskolako ikasleek ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa ikustera joan ahal izango dute interesdunek. Hilaren 16ra arte izango dute horretarako aukera. **Mercero gunea, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:30era.**

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka antzerki eta dantza eskolak 21. Antzerki eta Dantza Astea ospatuko du. Eskolako ikasleak arituko dira oholza gainean.

**10:00etan**, ikastetxeetako haurrentzako antzerki emanaldiak egingo dituzte. LH5-6 eta DBH1-2-3. mailako gazteek *Txano & Gorritxu 3.0* obra taularatu dute. LH5-6 eta DBH1-2. mailakoek, berriz, *Komun publikoa* erakutsiko dute, eta LH4-5. mailako ikasleek, berriz, *Menua*. LH3-5-6 eta DBH 1-2. mailako Sorkuntza taldeko dantzariak ere emanaldia egingo dute, **10:00etatik 13:00etara.**

**19:00etan**, publiko zabalari zuzendutako emanaldiak izango dira; eskainiko dituzten obra eta dantza erakustaldia goizeko berak izango dira. **Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.**

## LARUNBATA 10

### LASARTE-ORIA Dantza

Euskal Dantza eta Sorkuntza emanaldiak. Lehen modalitatean

HH5, LH1 eta LH1-2 taldeak ariko dira; bigarrenean, LH3-5-6, DBH1-2, DBH 3-4, Gazteak-Batxiler eta Helduak. **Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.**

### FALTZES Topaketa

Faltzeseko erraldoi Carlos eta Blancaren 75. urteak ospatzeko, erraldoien topaketa antolatuko dute. Guztira 133 erraldoi dantzatuko dute aipatu herriko kaleetan zehar, horien artean, LOZETekoek ere bai. Bi erraldoi handi eta bi txiki eramanago dituztela iragarri du taldeak.

**Faltzes (Nafarroa), 10:30etik aurrera.**

## ASTEARTEA 13

### LASARTE-ORIA Entsegua

Erketz dantza taldeak jakinarazi du ekainaren 23ko San Joan bezperako sokadantza prestatzeko entseguak egingo dituela, Garaikoetxea-Landaberri ikastetxean. Asteartero egingo ditu saioak, **19:00etatik aurrera.** Ekitaldi horretan parte hartu nahi duen edonon joan daitezke saioetara.

**Garaikoetxea-Landaberri ikastetxea, 19:00etan.**

### LASARTE-ORIA Entsegua

Hilaren 28 arratsaldeko Sorgin Dantza prestatzen hasteko deia egin du Ttakun Kultur Elkarteak.

**Okendo plaza, 20:00etan.**

## OSTEGUNA 15

### LASARTE-ORIA Zinema

Oriarte Institutuko ikasleen Zinema Habian egitasmoaren

aurkezpena egingo dute Mercero gunean. Sarrera doakoa da. **Mercero gunea, 19:00etan.**

## LARUNBATA 17

### LASARTE-ORIA Dantza

Euskal Dantza erakustaldia egingo dute Erketz Dantza Taldeko dantzariak.

**Okendo plaza, 19:00etan.**

## IGANDEA 18

### LASARTE-ORIA Proiektzioa

lhitten taldeak herriko historia erakusten duen *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala ondu du eta hori ikusteko aukera izango dute herritarrek.

**Kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTELEHENA 19

### LASARTE-ORIA Musika

Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dutela iragarri dute. Bertaratu nahi dutenek gonbidapenak hartu behar dituzte. **Kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 20

### LASARTE-ORIA Musika

Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dutela iragarri dute. Bertaratu nahi dutenek gonbidapenak hartu behar dituzte. **Kultur etxea, 19:00etan.**



TXINTXARRI

**LASARTE-ORIA Erromeria.** Semblante Andaluz elkarteak Rocioko erromeria ekarriko du Lasarte-Oriara. Aurten, egun bakarrera mugatu dute egitaraua, igande honetan, hilak 11. Hauek dira antolatzaileek iragarri dituzten jarduerak:

**11:30ean**, Meza rociroa, Arantzazuko Ama parrokiaren. Semblante Andaluz koruak kantatuko du.

**12:00etan**, tabernaren irekiera.

**12:30ean**, Amabirjinaren erromeria, Arantzazuko Ama parrokiatik, Atsobakarrera.

**13:30ean**, Semblante Andaluzeko Al alba eta Azahar dantza taldeen emanaldia.

**14:00etan**, Ohorezko ardoan, udal ordezkari eta gonbidatuekin.

**14:30ean**, Herri bazkaria.

**16:00etan**, Errenteriako Aljarafe eta Concha Rociera eta Irungo Embrujo Andaluz taldeen emanaldia.

**17:00etan**, Semblante Andaluzeko Duende taldearen emanaldia.

**17:20etan**, dantza herrikoa.

**20:00etan**, Semblante Rociro koruaren eta Duende taldearen emanaldia.

Horren ostean, Amabirjina agurtuko dute, Salve Rociroa abestuz.

**21:30ean**, erromeriaren amaiera.

**Etzi, hilak 11, Herriko zenbait txokotan, 11:30etik aurrera.**

## ASTEAZKENA 21

### LASARTE-ORIA Musika

Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dutela iragarri dute. Kurtsoan zehar ikasi dutena erakutsiko dute. Gonbidapenak hartu behar dituzte interesdunek. **Kultur etxea, 19:00etan.**

## OSTEGUNA 22

### LASARTE-ORIA Proiektzioa

lhitten taldeak herriko historia erakusten duen *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala ondu du eta hori ikusteko aukera izango dute herritarrek. Ondoren tertuliatxo bat egingo dute.

**Mercero gunea, 18:00etan.**



# txintxarri

Deskontu bereziak herrikoentzat!

## Sanpedroetako zenbaki bereziak ekainaren 23an eta uztailaren 7an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) | 646 82 44 66



Jardueran parte hartu duten familien talde argazkia atera dute, Jalgi Kafe Antzokiaren atarian. TXINTXARRI



Ederki astindu dituzte gorputzak, arratsaldea giroten jarraitzeko. TXINTXARRI

# Ikasturte amaierako festa egin dute Jalgin

2022-2023 ikasturtean GurasoLeku egitasmoan parte hartu duten familientzat festa prestatu du Ttakun Kultur Elkarteak. Jalgi Kafe Antzokian bildu dira 60 familia baino gehiago, eta giro ezin hobean eman diote amaiera kurtsoari

## Txintxarri

Haur eta helduz bete zen astearte arratsaldean, hilak 6, Jalgi Kafe Antzokia. Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean, GurasoLeku egitasmoaren ikasturte amaierako festa antolatu zuen, eta bertan bildu ziren programa horretan parte hartzen duten 60 familia baino gehiago.

Bertaratutako familiei ongietorria egin, eta diplomaxo bana banatu zien ekimenaren arduradun Jagoba Mendizabalek. Hori jaso ahala, taberna atarian bildu ziren, eta talde argazkia atera zuten, denek elkarrekin.

Edateko jogurta eta gozo bana ere eskaini zieten askari gisa, eta indarrak hartu ostean, dantzan aritu ziren. Bozgorailutik aireratutako *Euri tanta banintz*, *Peru krokodiloa* eta *Aldapan gora* abestien erritorea, Igone Mendizabal, Olatz Bardaji eta Garazi Lopezek gidatutako dantza saio alai batean parte hartu zuten gaztetxoek; beno, eta zenbait gurasok ere bai.

Arduradunek azaldu dute, Jalgi Kafe Antzokia aukeratu dutela azken jarduera aurrera eramateko, "Lasarte-Oriako euskaldunen elkargune naturala" delako: "Programaren helburuak eta kafe

antzokiarenak guztiz bat egiten dute".

## Ezagutza eta erabilera indartu

Udalerrian erroldatutako 0 eta 5 urte bitarteko haurren gurasoek Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskutik jasotzen dute egitasmoaren nondik norakoa lehendabizikoz. Segidan, aukera desberdinen berri ematen zaie eta, familien hizkuntza tipologiaren eta adierazitako interesaren arabera, ongienegokitzen zaien programan parte hartzera animatzen dituzte.

GurasoTegi programa, euskara ez dakiten edo maila nahikoa ez



60 familia baino gehiago elkartu ziren Jalgi Kafe Antzokian. TXINTXARRI

duten gurasoei dago zuzendua. Taldetxoak antolatzen dira eta AEK Muntteri Euskaltegiko irakasleak ikastetxeetara bertara joaten dira euskara ikastaroak ematera

GurasoLagun egitasmoak, aldiz, profil linguistiko desberdineko gurasoak biltzen ditu. Batetik, euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ohitura dutenak eta, bestetik, beren

inguru naturalean aukerarik edo ohiturarik ez dutelako, praktikatzeko beharra dutenak. Taldetxo txikiak izaten dira eta saioak mintzapraktikan oinarritzen dira.

Ekimenaren berri izan nahi duten familiek, Jalgi Kafe Antzokian jarritako panelen erakusketa bisita dezakete. Hamabost egunez egongo dira horiek bertan ikusgai.

# zitek zientzi eskola

Goikale Kalea 12, behea.  
Lasarte-Oria. 943-36 31 06  
info@zitek-akademia.com  
www.zitek-akademia.com

Laguntza taldeak  
Ikasketa teknikak

**2023-2024 IKASTURTEA**  
(irailaren 4tik aurrera)

Gorde plaza eta aukeratu eskolen ordutegia

· LH - DBH -  
BATXILLERGOA - ZIKLOAK  
· Zientziak | letrak

· HIZKUNTZAK: ingelera eta Frantsesa

**2023 UDAKO IKASTAROK**

(uztailaren 3tik aurrera)

· Errepaso taldeak udaran

· Ikasketa teknikak hobetu eta emaitza hobeak lortu!